

DIRU SARRERAK

Diru-iturriei dagokienez, gure enpresa ideia aurrera ateratzeko beharrezkoa den diru kantitatea dela esan dezakegu, baita diru hori nondik lortuko dugun ere.

Gure diru-iturria bat eta bakarra da, zehazki, gure enpresa ideia bezeroei salduz lortuko ditugu irabaziak. Hasierako tresna bakoitza 300€tan erosiko dugu eta beraz hori izango da hasieran gastatuko duguna eta ondoren, profesionalen eskulanarekin (gure enpresak



egingo duena) prezioa zerbait igoko litzateke, 800€-tan geratuz bezeroen esku. Beraz, bezeroek ez dute arazorik izango gure aparatua erosterako garaian, izan ere, garraioak ez du azken prezio hau gehiegirik igoko, eta gainera, oso errentagarria denez, hau da, epe luzerako baliagarria denez, istripuak ekidingo dituelako eta gizarteari segurtasuna bermatuko dioelako, erabiltzaileek ez dute gure produktua konpondu edo berritu beharko beraien kasa, seguruak kubrituko baitu.

